

nazio-arteko-unea

Inportazioko jokabiderik ez

RIKARDO ARREGI

Gauz kuriosoak ikusi ta entzun ditugu Txekoslovakia gertaerekin. Sobietarrak eta bere monagilloek nazioartekotasunaren izenean inperialismorik nazkantenaren bitartez Herri bat zapaltzen. Biafrarrak zapaltzeko Nigeria'ri armak ugaritasun guztian ematen dizkion Londres'ko gobernua protestarik beroenak egiten sobietarrak Txekoslovakia zapaldu dutelako. Santo Domingo'n beste orrenbeste egin zuen eta Vietname'n beste orrenbeste egiten ari den Washington'eko gobernua santu balitz bezela bere soñekoak urratzen Mosku'ko zapaltzaileak egin dutenagatik. Bere aragian inperialismo bat sufritzen ari diran Ipar Vietname'ko buruzagiek sobietarren

inperialismoa onartzen. Txinarrak berriz, Dubcek eta bere kidekoek, rebisionista alproja batzuek besterik ez dirala baldin badiote ere, sobietar «faszisten» inperialismoa kondenatzen. Fidel Castro bera ere, nola bait, sobietarren egite onartzen.

Sozialismoaren erreboluziogintzan siñisten zuten zenbaitek stalinismoa ta marxismoaren ortodoxia ezin onaturik, azaldu beziñ laister sozialismo ta komunismo heterodoxo guztiak daudorior betetzen zituzten. Era ontara manikeismo bat piztu zuten, zorrotzagoa ta izkutugoa baldin bada ere. Alderdi komunistakoek, bere burua ortodoxiaren kutxaz zeukatenez, bere alderdia iñoiz era ezin zitekiela ekibokatu uste zuten, eta gainontzeko guztiek ezin zeatekiela egirik izan. Heterodoxoek, nahiz eta heterodoxoek izateagatik dogmakerian erortzeko arrisku gutxiago izan, beste lurraldetako heterodoxoek gehiegi ta itsuegi goraltzerakoan eta jarraitzerakoan ere manikeismo batetik ez dabiltz urruti. Izan ere sozialista batek ez du besteaz baliatu behar, ez du iñorren monagillo izan behar. Orregatik da tristeia zenbait gazte sozialista, alderdi komunistakoek izan nahi ez dutenak —nahiko arrazoiarekin gainera—, castrozele, guevarabale, maozele etab, biurtuta ikustea. Bakoitzak sozialista izan behar du bere Herriaren zirkunstantzietan, iñorren monagillo izan gabe ta beste alderdietakoa inportatu gabe, bertako sozialismogintza jatorra sortuaz baizik. Ez dugu inportazioko sozialismorik behar. Ez dugu nazioar-

tekotasunaren izenean beste Herri baten inperialismoa onartu nahi.

Sobietarrak Txekoslovakia zapaltzeakin sozialismogintza baztertu egin behar dela adierazi al du? Sozialismogintza guztia alperrikakoa ta kaltegarria dela? Aldrebes uste dut.

Burokrazi guztitik eta ortodoxo guztitik mesfidaturik zebiltzanak beñ eta berriro, eta kondizio negargarrietan gainera, arrazoi guztia butela ikusi dute. Burokrata ta ortodoxo itxi bildurgarri auek nazioartekotasuna esaten dutenean inperialismoa adierazi nahi dutela, indarra dela bere arrazoi ta ez egia, munduko kontserbadore ta reazkionarioen aliadu biurtzen dirala, libertadea esaten dutenean burokraziaren diktadura adierazi nahi dutela —zorritxarrean—, beñ eta berriro argiegi azaldu da. Sozialista ta ezkertiar berriak arrazoi jaso dute alde ortatik beraz.

Baiñan ez alde ortatik bakarrik. Txekoslovakia'ko erresumen burruka ez da izan kapitalismoa ta sozialdemokrazia berpizteko —ta au esatea, ezin bestela izan, ahaztu egin zaie eguneroko, irratia ta telebista kontserbadorei—. Oien burruka sozialismo demokratikaren baten alde izan da ta ez sozialdemokraziaren edo kapitalismoaren alde, bi gauz diferente baidira. Brevnev, Gomulka, Ulbricht etab. erabat kondenatzen baldin baditugu ez du orrek esan nahi Wilson eta Guy Mollet artzen ditugunik sozialismoaren eredutzat. Ezta ere beste Brevnev txikiak edo Wilson txikiak.

